



2007ko ekainaren 24a

ARGIA

16

PHOTO © TXOMIN TXUEKA

# Balata: lur bat itxaroari

Palestina marrazteko galdetu zioten neska txiki bati, eta kartografoaren mapak edo poetaren poemek baino askoz ere irudi zehatzagoa eta politagoa sortu zuen: lurrezko ontzitxo bat bi olibondo adar ermetzen zitzaizkiola barrutik. Baina neska txikia joan zenean, ontzia paperetik behera amildu zen, eta milaka zati egin zen lurrean. “Ez haiz beherago eroriko” pentsatu zuen norbaitek. Baina bigarren kolpea ere hartu zuen, lurretik beherago erorita –ia itsaso hileraino–, eta lehen milaka ziren lur zatiak milioika zabaldu ziren mundu osoan. Geroztik ere, egunero ari dira zangoak lur ontzi zatitxoak zapaltzen, eta txikitzen, eta zabaltzen. Eta ontzi zati urrunduak ez dezake jada bildu ontzi osoa mapa berri batean, eta lur zati hautsiak ez dezake jada olibondo adarrik eutsi poema zaharretan. Baina ontzi zati bakoitzak palestinatar bat darama bere barruan, eta palestinatar bakoitzak lur zati bat. Munduan barrena errefuxiatutako milioika zati txiki, horixe da Palestina.

AMETS ARZALLUS

Argazkiak: Txomin Txueka


**BERE HERRIXKA MARRAZTEKO** galdetu nion mutil kozkorrari, eta “zaila da” esan zidan. Kolorrezko arkatzak eman nizkion eskura, eta “ez dakit marrazten” esan zidan, “bai, marrazten denek dakite”, nik baneki bezala. “Ez, marraztea idaztea bezalakoa da, eta nik ez dakit idazten” esan zidan. “Marraztu ahoz” erre nuen etsi aurrekoa, eta irribarre egin zidan. “Oso polita da nire herrixka, olibondo sail luzeak daude, eta jolasteko leku handi-handiak, haurrak jolasteko. Itsasoa ere bai. Berde-berdea da. Munduko lekurik zoragarriena da niretzat”. Begiak zabaldu zituen eta irribarretxo itxi. Orduan antzeman nion bere herrixka sekula ikusi ez duen milioika palestinaretako bat zela. Eta horregatik maite zuen hain itsu aitonaren gauetako kontakizunetan bakarrik zapaldu duen bere lurra. Ez nion esan badaezpada, bere herrixka berde-berdean Tel Aviveko aireportua eraiki dutela.

“Ni Balatan bizi naiz, baina Sheikh Muwanis da nire jatorrizko herrixka”. Hamar palestinaretik zortzi ez da bere herrixkan bizi. Eta “nongoa zara?” galdetzen badiozu, erantzun konposatua jasoko duzu. “Ni ere Balatan bizi

naiz, baina nire herrixka Kafr Bir'im da”. Bere aitona-amonek bost hamarkada lehenago utzi behar izan zuten herrixkatxoaren izena da, berak inoiz ikusi gabea. Palestinatar gehienak ez dira beren herrixkan jaio. Nik han ikusi nituen denak Balatan jaioak ziren, eta Balatan haziak, baina inor ez zen Balatakoa, nahiz eta asko ez

## Errefuxiatuak zenbakitan

- ✓ 3: munduko hiru errefuxiatutik bat palestinarra da.
- ✓ 6-7: ez dago datu zehatzik, baina sei eta zazpi milioi bitartean kontatzen dira errefuxiatu palestinarrak. Guztira hamaika bat milioi dira palestinarrak.
- ✓ 8: hamar palestinaretik zortzi izan dira, edo dira, errefuxiatuak.
- ✓ 62: hirurogeita bi palestinatar errefuxiatu kanpamentu daude guztira, Gazan, Zisjordanian, Libanon, Jordanian eta Sirian zabalduak.
- ✓ 194: NBE 194. erresoluzioak onartzen du 1948ko gerran errefuxiatu behar izan zuten arabiar eta judu denek dutela beren herrira itzultzeko eskubidea, eta galdutako ondasunengatik kalte ordainak jasotzeko eskubidea. Ez da sekula praktikara eraman.



## Begi urdinak

**Amona:** Hondarrezko ordulari batean isurtzen zen denbora, eta amonak paper batean markatzen zuen ordulariari zenbat buelta ematen zizkion egunean. "Denbora eskutik helduta eraman behar da aurrera, bestela, inor begira ez dagoen batean, atzeraka hasiko da". Eta hondar jauziari begira pasatzen zituen egunak, esku batez denbora bete, eta beste eskuaz paper batean idatzi. Oheratu baino lehen egun hartako makilatxo berriak kontatzen zituen banan-banan. Bazekien zenbat makilatxo ziren bere familiak herrixkatik alde egin behar izan zuenetik, eta bazekien zenbat makilatxo ziren aitona hil zenetik.

**Aitona:** Begi urdinak zituen aitonak, eta bakarra zen errefuxiatu eremu osoan. "Itsasoa ikusi zuelako" esaten zuen jendeak. Aitona baitzen, denen artean, olatuen hotsa entzun zuen bakarra, herrixka hartan jaio zen azken palestinarra. Ondorengo denak, eta baita amona ere, kanpamentuan etorri ziren mundura, eta denek ekarri zituzten begi beltz-beltzak. Argi bakarra aitona. Eta esaten zuen hurrengo begi urdina jaiotzen zenean itzuliko zirela errefuxiatuak etxera. "Begi urdinak itsasoa ikusteko eginak dira".

**Shaed txikia:** Aitonaren begiak zituen. Baina poltsikoan gordeta. Amonak eman zizkion aitona hil zenean, itsasoa nolako zen jakin zezan. Baina Shaed txikiak, zer itsaso eta zer itsasondo, lagunekin kaniketan jolasteko erabiltzen zituen. Eta irabazle fama zuten kanika guztien artean, kanika haiek ikusi



PHOTO © TXOMIN TXUEKA

egiten baitzuten non zegoen bestea. Arratsalde batean, ordea, lo hartu zuten, eta Shaed txikiak poltsikoak hutsik ekarri zituen etxera. "Non utzi dituzu aitonaren begiak?" galdetu zion amonak, eta mutikoak, bururik altxa gabe zutitu zituen sei hitz: "Kaniketan galdu ditut, Mussak irabazi dizkit".

**Denbora:** Erantzun hitzak urtu egin ziren amonaren ezpaine-tan; malko bat erori zen hondarrezko ordulariaren pitzaduraz barrena. Eta gero beste bat, eta gero beste bi, eta gero beste asko. Azken makilatxoaren arrastoak ere malkoek eraman zituzten. Eta azkenean, hondarra gelditu egin zen, eta malkoek segitu zuten gora eta behera.

diren egundo Balatatik atera, ez bada Nabulusera joateko. Nabulus bi kilometro eskasera baitago Balatiko errefuxiatu kanpamentutik, eta Sheikh Muwanis, berriz, ehun batera. Kafr Bir'imera ere berdintsu, kilometroak ehun bat. Baina egun asko. Urteak. Hamarkadak beharko dituzte hara itzultzeko. Eta atzamarkadak.

### Zisjordaniako handiena

1952an sartu ziren lehen kanpin dendak Balatan. Gehienak Jafatik etorriak. Kilometro bateko zelaigunean landatu zituzten, bost mila errefuxiatu aterpe emateko beste. Baina dentsitate zenbakiak kilometroenak bezain erlatiboak dira Palestinan; egun, 23.000 pertsona kabitzen dira leku estu horretan. Eta arnasa soberan balego

bezala, hilabete oro hirurehun errefuxiatu gehiago iristen dira Balatara. Pertsona bakoitzak 10,6 metro koadroko lekua du beretzat, Sheikh Muwanisen bizi diren israeldarrek 1.000 metro koadrotik gora dute. Hori irakurtzean ulertu nuen mutil kozkorak zergatik esan zidan hainbesteko ilusioz bere herrixkan jolasteko leku zabal-zabalak daudela. Eta itsasoa dagoela ere bai. Balatan 1977an sartu baitzen ura etxe bakoitzean, kanpin dendak adreiluzko bihurtu eta zazpi urtera. Elektrizitateak 1980ra arte itxaron behar izan zuen, abiadura handian mugitzen omen da baina.

Ez da Gazako Jabalia bezain gogorra, ez da Libanoko Nahr al-Bared bezain sonatua, baina Balata Zisjordania osoko errefuxiatu kanpamen-



**UZTARTZA**  
Aterpetxea • Jatetxea

Herriko plaza 7 - 20150 Aduna  
Tfnoa: 943 69 34 81

Eguneko menua 9,50 €

Asteburuko menua 18 €

Asteburutan karta

PHOTO © TXOMIN TXUEKA



PHOTO © TXOMIN TXUEKA



turik handiena da. Jendetsuena esan nahi dut, hautsuena jakina. Eta haurrei irakurtzen eta idazten erakusteko bost eskola daude, lautik bat anal-fabetoa baita azken datuetan. Ospitale bakarra dago, eta bi sendagile. Baina debekatua dago ostiraletan ordu bietatik atzera eta igandetan edozein ordutan gaixotzea. Ez da koranaren agindu bat, sendagileen atseden egunetan itxita dago UNRWako ospitaletxo. Alta, soldadu israeldarrak ez dira egunari eta orduari begira ibiltzen. Noiznahi eta nolana sartzen dira Balatako kale estuetan. Bigarren intifadan 160 lagun hil zituzten hemen, beste lau mila zauritu, eta oraindik ere gau askotan dentsitatea pixka bat jaistera etortzen dira.

Eskasia orokorra da: espaziorik ez, semeak etxetik falta, sendagile gutxi, janaria urri... Baina “zer da gehien behar dena?” galdera materialista luzatu nuenean, aho batez erantzun zidaten denek: “Itzultzeko eskubidea”.

### Amaordearen magala

Israelen esperantza zen zaharrak hil egingo zirela, eta gazteek ahaztu egingo zutela. Zaharren heriotza iragarpenean asmatu zuen, baina gazteen ahaztura ustean ez. Herrixka minaren suak palestinarren zainak urtzen segitzen du, eta sustraiak ez dira lur berrira egin, ez eta egingo. “Maitagarria da Balata, hemen jolastu nintzen umetan, hemen ditut lagunak, hemen daude nire pauso guztiak, baina ezin dut maite. Hau ez da sekula nire etxea izango. Nire etxea han dago. Balata denboraldi baterako itxaron lekua baino ez da, eta egun batean joan egingo naiz, itzuliko gara, badakit”. Egun horretan, Balata, milaka errefuxiaturik magala emandako lurra, bakarrik geldituko da, isilik, triste. Eta berak ere kantatuko du berekiko: “Erroak ebaki banizkio nirea izango zen”. ■

## kulturagenda

Ekainaren 19etik 26ra



Urdaneta kalea, 9 | 20006 donostia

Erakusketa  
Ganbara aretoa

**Isidoro Guinea**  
**Eta dekorazio arteak**


**Ekainaren 23arte**

Azken egunak

Orduetgia:

10:30-14:00 | 16:00-20:30

Igande eta astelehenetan itxita



Kristobaldegi, 14 | 20014 donostia | www.arteleku.net

**Dean Roberts**  
**Kontzertua**

**Ekainak 18. 20:00**

Koordinatzailea: **Audiolab**

Sarrera libre da

[www.kranky.net](http://www.kranky.net)

**Litografia tailerra**

**Uztailak 2-30**


Koordinatzailea: **Don Herbert**

Orduetgia:

astelehenetik ostiralera,  
goizez eta arratsaldez.

Izena ematea: ekainak 25

Prezioa: 78,13€



# «Presoen gaia lurrarena»



PHOTO © TXOMIN TXUEKA

## Fadwa Barghouti

Fadwa Barghoutik bere Ramalako bulegoan hartu gintuen, lege emakumea baita. Eta batez ere preso baten kasua azaldu zigun, Marwan Barghouti Al Fatako burukidearena. Gaur eguneko lider palestinar maitatuena da Marwan, hala diote kalean, eta Fadwak ez zuen ezetzik esan, bere senarra ere badelako.

**PALESTINAR ASKORI** lider politiko bat aipatu eta purrustada ateratzen zaie. Marwan Barghouti aipatu eta irribarrez erantzuten dute. Zergatik? Marwanek benetan sinesten du bakean, baina bakea estatu palestinarrekin etorri behar dela dio. Hori iritsi bitarte bera kalera aterako da herriarekin, eta borrokatuko da *check point*-etan eta behar den lekuan. Beste lider politiko batzuk beren bulegoetan eserita egoten dira, Marwan kalean bizi da, eta horregatik errespetatzen dute hainbeste.

**Hamasekin, Jihadekin, FPLPrekin, nolako harremana du?**

Denekin du harreman ona. Bai Hanijehrekin, bai Khaled Meshalekin, Ahmed Saadatekin, guztiakin. Marwanek ez baitu programa pertsonal bat, Marwanena programa nazionala da, eta palestinar lider guztiakin lantzen du lotura. Marwanek sinesten du herri palestinarrak bide politiko eta borroka bide berdinar behar dituela. Munduaren aurrean bat eginda azaldu behar dugu.

**Baina esaten da Al Fataren barruan ere bide bat baino gehiago daudela. Marwan Barghoutiren bidea, eta Abu Mazenen bidea, adibidez.**

Marwan eta Abu Mazenen arteko harremana oso ona da, Marwanek uste duelako Abu Mazenek laguntza behar duela egoera konplikatuhonetan. Eta Abu Mazen koalizio gobernuberriko buruzagitzan egotea beharrezkoa da.

## Marwan Barghouti

**Al Fata alderdiko burukidea da. 2002ko apirilaren 20an atxilotu zuten, eta Ashkeloneko kartzelan dago preso. Bost bizitza osorako kartzela zigor jarri zizkioten Al Aqsako Martirien Brigaden buru gisan bost erailketa leporatuta. Atxilotu zutenean, Palestinako Parlamentuko kide preso bakarra zen. Orain, kontseilu legegileko %39a kartzelan dago.**

**Joan zaio Abu Mazen bisitan?**

Ez, Abu Mazenek ez du bisitatu, baina beste liderrek, Al Fatakoek, eta independenteek, bai. Abu Mazen ez zaio joan, baina beste bat bidaltzen du bere ordeaz, eta horrela kontaktuan segitzen dute. Edozein erabaki hartu behar dela ere, Al Fata barruan beti kontsultatzen dute Marwanekin.

**Zu maiz joaten zara bisitan?**

Hamabostean behin. Gogorra da, goizeko bostetan ateratzen naiz etxetik, eta gaueko hamaiketara edo hamabitan itzultzen naiz. Tartean berrogeita bost minutu bakarrik ditut, kristal bat erdian dela, bera ikusteko. Baina gustura nago, nire haurrek urtean behin baino ezin dute ikusi. Hamasei urtetik berrogeita bost urtera bitartekoek urtean behin bakarrik dute presoa ikusteko baime-na. Ni hamabostean behin joaten naiz eta gainera egoera onean ikusten dut.

**Nolako bizi baldintzak ditu?**

Oso gogorrak, isolamenduko ziega batean dago, eta egunero ordubete baino ezin du kanpora atera. Hogeita hiru ordu pasatzen ditu bi metro luze eta metro bat eta erdi zabal den ziega batean. Ezin du harremanik eduki beste presoekin, bakar-bakarrik dago. Baina ongi dago, liburuak eta korana irakurtzen pasatzen du eguna. Egunean hamar ordu baino gehiago pasatzen du leitzen. ■

Presoen emazteak

# «bezain garrantzitsua da»

## Abla Saadat

Abla Saadat Mukataren (Palestinako Gobernuaren egoitza) ondoan bizi da, Ramalan, eta presoen eskubideen alde ez ezik emakumeen eskubideen alde ere ari da. Ez da oso zuzena emazte bati bere senarrari buruz egitea elkarrizketa, baina kasu honetan, “normala da, berak ez dezake hitz egin, eta nik hitz egingo dizut” barkatu digu.

PHOTO © TXOMIN TXUEKA



**ZENBAT LAN EGIN** behar du emazte batek bere senarra lider politikoa denean?

Etxearen eta haurren ardura osoa hartu beharra daukat nire senarrari lan politikoa egiteko bidea libre uzteko. Eta maiz, bera ez denean iritsi bere eginbehar politiko batzuetara, nik hartu izan dut bere lekua.

**Eta zuen etxea misilen jo puntuan egon izan da?**

Abu ali Mustafa (Saadaten aurretik FPLPko burua zena) eraila izan zenean, orain sei urte, Ahmed ere jo puntuan hartu zuten israeldarrek eta batez ere gure etxea. Hori zela eta ez zezakeen bizitza normala egin, ez zen etxean egoten, beti ezkutuan. Israeleko Turismo ministroa hil zutenetik hiru hilabetera atxilotu zuten, eta hiru hilabete horietan gu ere jo puntuan egon ginen, ni eta haur guztiak, nire senarra non zegoen eta zertan ari zen jakin nahi zutelako.

**Baina atxilotu, palestinarrak atxilotu zuten.**

Presio israeldarreatatik egin zuten, ez palestinarrak nahi zutelako. Tranpa bat jarri zioten. FPLPko jende asko ari ziren atxilotzen eta Ahmedek zer gertatzen ari zen jakin nahi zuen. Negoziatu egin nahi zuen. Palestinar zerbitzu sekretuetako buruak hitzordua jarri zion hitz egiteko, eta hara azaldu zenean atxilotu zuten.

## Ahmad Saadat

FPLPko burua da. 2002ko urtarrilaren 15ean atxilotu zuten segurtasun indar palestinarrak, eta Jerikon espetxeratu. Baina ia soldadu israeldarrek Jerikoko kartzela asaltatu zuten eta Saadat eta beste sei preso beraiekin eramanez. Geroztik Ashkelonen dago bizitza osorako kondenarekin Rehavam Zeevi Israelgo Turismo ministroa hil zuen ekintza prestatzea leporatuta.

Gero mundu osora zabaldu zen israeldarrek nola sartu ziren Jerikoko kartzelara zure senarraren bila. Baina torturaren berri ez zen entzun. Tortura maiz erabiltzen da?

Torturak erabiltzen dituzte, bai, baina Ahmedek hamasei urte zituenetik ez du deus ere aitortu galdeketa batean, eta horregatik gero eta okerrago tratatzen dute. 1992an ehun eguneko galdeketa bat egin zioten, oso gogorra, ez zioten utzi lorik egiten, beti esnatzen zuten, horrela uste dute zerbait esango duela baina ez du inoiz ezer aitortu.

**Errefuxiatuen arazoa eztabaida politikoa dago, presoena apenas entzuten den.**

Hamabi mila preso daude, eta presoen gaia lurrarena edo eraikitzen ari diren hormarena bezain garrantzitsua da gaur egun. Dena den Ramalan badago presoen ministerioa, eta badira presoen eta senideen sostengu taldeak ere. Adibidez, preso bakoitzari abokatu bat doan jartzen saiatzen dira.

**Judizialki nola dago Saadaten afera?**

Turismo ministroa hil zutenean nire senarra akusatu zuten ekintza hori pentsatu eta pres-tatu izanaz. Akusazioetan aipatzen zen hogeita hamar lekukok aitortu zutela hori. ■

<http://www.argia.com/palestina>  
kanalean, bidaiari buruzko ikus-entzunezkoak.